

**ARRANTZALE GIZARTEKO OSAGAIEI BURUZKO
IKERKETAN ZENBAIT OHAR**

PEDRO M.^a FERNÁNDEZ DE LARRINOA

Gaur egun maiz entzuten da gure Herriko bizimodu berezi eta jatorra aldatzen ari dela, gero eta gehiago gizarte industrialeko tresnak, usadioak eta pentsamoldeak sartzen ari direlarik, gure herrietako euskaldunen aintzineko bizimodua hiltzorian edo desagertzeko moduan ipiniaz

Hau ez da Euskalerrriari berari xoil-xoilik dagokion gertaera bat. Historia, ekonomia, soziologia eta antropologiako ikerlanek adierazten digutenari jarraituz, esan dezakegu antolamendu ekonomiko eta sozialak oro, orain mende askotatik baina XIX.etik gehienbat -kapitalismo industrialaz alduta, alegia- aurkitzen direla, Mendebalaren menpean, etengabeko urradura, deserasketa, desegiketa edo funtsezko aldaketan. Mundua, bizitza, gizona eta honexek egiten duena aldatzen da; geldi ez zaigu behin ere azaltzen.

Aldakuntza hontan «tradiziozko gizartea» edo gizataldea esaera ez dugu urrun samar geuregandik entzuten. Industrigintzaren kanpoan geratu diren bizimodu eta lanbideez hitzegiterakoan askok egin dute arestian esan dugunarekin, hots, «tradiziozko gizarteak» direla esatearekin.

Baina hitz bera diogun arren ez dugu denok zentzu bera geureganatzen eta horrexegatik, jarraitu baino lehen, argitu nahi nuke zer den nik neuk ulertzen dudana edo, xehetasun handiago erabili, neronek baztertzeko dudana honexetaz mintzatzen edo idazten dudanetan.

Alde batetik, Euskalerrrian bizirik dauden bi planteamendu aztertu nahi nuke. Lehenengoa zera izango litzateke: artzain, arrantzale edo nekazari gizataldeak produkzio modu nagusiaren kanpoan daudela, hots, formagabekoak direla, eta egitura sozial jatorrik eza beraien ezaugarriena dela esan ohi duena. Eta bigarrenak, aipatu ere, aipatzen ditu, «tradizionalak» direla oharraraziaz, urrengo esanahiarekin lagunduta: tradizionari datxezkiola eta, era berean, oraingo industrigintzaz bestealdetik aurkitzen direla.

Baldin antropologoaren zeregina ikasten saiatzen den gizataldearen barneko gizalegetan badihardu ere, eta holaxe -ez beste modu honetara edo horretara- jokarazi dioten normak eta baloreak adieraztea bada ere, kontutan izan behar du, behin eta berriro, beste gizataldetako segmen- duekin harremanetan dabilela, nahiz eta nahi dituzuenetakoak izan, eta hauexek ere ikasi eta argibideratu beharrean aurkitzen du bere burua.

Europar, Asian, edonon ezagutzen dugun edozein herri-heruntzago jo baldin badut herri baten osagai sozialak- bere inguruetakokulturrekin ukipenak ditu; eman dezagun Afrikako argibide bat, E. E. EVANS-PRITCHARD-ek «nuer» herriaz landutako monografian azaltzen diguna. Idazlan hontan errez ikusten da, nuertarren bizimodua kutsatzen duen kulturari, «dinka» herriak izugarritzko garrantzi bat duela.

Exenplu zehatz bat ipintzera goaz, txostenaren motibuari dagokionari-Hondarribikok arrantzaleen bizimoduaren gizalegeak adieraz eta erakustea, alegia- eta, zer esanik ez hauen biziera osoz adierazi egingo ez genukela hango baserriarrekiko, komertziantekiko edo bertan direnekikok harremanei uko egin bagenie. Aldamenekok arrantzaleez edo urrutiagokoez edota beraietaz aditzen dutenak, arrainik ezak, erabaki politikoez edo edozein gauzak, beraien kulturakoa nahiz kanpokoa, eraman ahal dute aldatetarako.

Honekin esan nahi dugu herri bat, gizatalde bat ez dela bera bakarria, ez zaigula isolatua azaltzen; horrexegatik ikerlan batek barneko esplikazio eta kausak, gizatalde baten osagai sozialen arteko jardura edo funtzionamendua seinalatzen baditu ere, kanpotikok ez baditu kontutan hartzen egia osoa ez du agerian ipintzen eta benetako, zinezko ezaguera bat ez dugu inola ere jasotzen.

Gizatalde bat tradizioari datxekiola esateak ez digu bat ere argirik ekartzen ikerketara. Hauetako iritziemanek fenomeno bat xoil-xoilik izendatzen dute -gaizki deskribatzen duenaz gainera- zeren xehekatzen ez baitute.

Buka dezagun hitzurre hau bi gauza nagusi esanez. Lehenengoan, gizatalde bat edo gizarte baten segmendua bat izatea ez datza barneko harremanetan bakarrik, bai barneko eta kanpotikok jokaera eta eragiera batzuren arteko elkartzunean baizik. Jokaera eta eragiera hauek helburu dute segmendua edo gizatalde berauek berindartzea, baita ere bere buruari eustea kontrako ordena sozialarekin borrokan ahaleginez.

Bigarrenean, erantsi nahi diot arestian esandakoari jokaera, eragiera, edo -nahiago baldin baduzue- portaera hauek indar sozial batek bultzatuta aritzen direla. B. MALINOWSKI-k «Hilketa eta Ohitura basagizartean» saioan helburu proposatzen du «basati» izenekoan ohituren azpian legeak eta aginduak aurki ditzakegula adieraztea. Honetara, Trobiand isletan dagoen tribu bat ikertzen du. Bere idazlanean zehar, adibide eta xehetasun ugari dela medio ikuserazten digu honako lerroen bidez ondorendu ahal duguna:

«Basatiek betebeharezko aginduak ditu. Agindu eta arau hauei ez darie mystika kutsurik, ez dira Jaungoikoaren izenean emanik eta ez dardaturgainekok behartzepean ere. Beraien jokabidera bultzatzen dituen indarra bakarria soziala da» (B. MALINOWSKI, esandako saioan).

Nik neuk uste, gizarte bat ikertzen dugunean osatzen duten segmen-
duak segmenduz segmenu ikasi behar ditugula, berauen arteko harre-
manak eta beste batzurekin dituenak ahaztu egiteke aztertuta, zertan aritu
behar dudan edo zein arlotan barruan nabilen mugatzeko momentua ezin-
bestekaa Zaidala.

Hontaz, orainaldian Hondarribian aurkitzen naiz antropologiazko lan
bat egiteko asmoz. Ikerlan honen muinak bi galderari, nagusiki, erantzun
behar die. Hauexek:

- Zeintzu eta nolakoak dira eta izan dira Hondarribian diren gi-
zarteko osagaien arteko harremanak eta, era berean, kanpokoekin
dituztenak.
- Nolakoak dira eta izan dira ondasun eta osagai edo segmenu
hauen arteko harremanak.

Ikusi ahal dugunez, ikerlana bi ikuspegitatik ikasten da, sinkroniko
eta diakroniko izenekoak. Erabaki dut Hondarribiko erakunde hazkundera
denbora zehar erakusten ahalegitea zeren eta esandako hazkundera, aurre-
rabidea ez baita erabatekoa izan. Euskalerriko erakunde hazkundera, zei-
netan Hondarribia salbuespenik ez baita, erakunde desberdinak, antzeka-
beak topatzen ditugu. Batzu agertu, beste batzu desagertu, beti etenga-
beko hauzian. Hau iraunkorra dugu euskal erakunde hazkundera; eta gaur
egungo izate soziala, gaur egungo erakunde sozialak ulertu eta ezagutu egin
nahi baldin baditugu premiazkoa zaigu ikusbide historiko sakon bat era-
matea.

Hondarribian topo egiten dugu, besteak beste, arrantzale, artzai, ba-
serritarrekin eta beste irudi sozialekin ere; eta, gizarteko interes desber-
dinak badituzte ere adiskidegoan azaltzen zaizkigu. Zeren bitartez, zein
erakunderen bidez lortzen duten jakitea antropologorena da.

Baina harira gaitezen. Ikerketa sinkronikoa aurrera eramatekotan
aztertuko dizuet zeintzu diren nire irizpideak.

Ikerlanaren mamia da, goragoan esan dudan bezalaxe, Hondarribian
azaltzen diren gizarteko harremanak, baina argi eta garbi geratu behar da
arrantzale ikuspegitik dela.

Ustez, ezinezkoa litzateke barrenloturazko gizarteko biziera, pertso-
nak lotzen dituzten gizarteko harremanak instituzionalduak eta ordena-
tuak ez balira, hainbat puntutaraino gutxienez.

Gizarteko harremanen sistema ordenatu bati eusteko, pertsonak edo
gizabanakoak beharketaren bati makurtu egiten zaizkio, zeren ezin baitira
beti nahi duten legez ihardun.

Norberaren interesek gehienaren (1) kontrari jo dezakete eta horre-

(1) Hemen ez dut sartu nahi gizarteko gehien hau faltsukeria edo denez arloan gaitik
irteten da eta.

xegatik gizarte edo gizatalde guztietan onartzen dira, menpekotu ere, arau batzu edo, bestela esan, pertsonen jokaeraren kontrako indarkeria.

Agindu eta arau hauek, baita ekineraztera bultzatzen dituzten gizarteko tresnak ere, gizartetik gizartera bereiztu egiten dira zenbait gizarteko ordenua, onean edo txarrean, garantizatzen dute, ordea.

Honetaz, guk geuk, gizatalde batek nola funtzionatzen duen jakin eta ezagutu nahi dugunok, galdetu behar dugu geure buruari zera: *zeintzu diren arau, agindu* -gizarteko ordenu hau menpekotzen dutenak, *alegia* -, *zein den aplikaketa, hatzemate ere, eta, azkenean, zertan diharduten*.

Honaino esandakoaren bitartez ikus dezakegu ikerketa hau bi ikusmodetatik planteiatzen dudala. Bata «antolamendu politikoari» datxekiona eta «legetza» eremuan finkaturik dagoena, bestea.

Antolamendu politikoaz mintzatzen garelarik pentsatzen ari gara gizarteko osagaiek eta gizabanakoek dituzten maila diferenteen arteko harreman ordenatuetan, zeinek gizarteko eremu zabalagoan aurkitzen baitira. Horrexegatik, sistema politiko edo antolamendu politiko batez ari garenean, kasu zehatz hontan, eskualde geografiko ezagun bati dagozkion gizarteko harremanetaz dihardugu, eta aipamen geografiko berau hartu behar dugu batasun politikoan definizioko garrantzizko puntutzat.

«Legetzaz» eta «gizarteko zigorrez», bestaldetik, hitzartzen dugunean bai gizarteak onarturiko arauetan eta aginduetan, bai gizabanakoen arteko harremanetan, bai gizarteko pertsonen jokabidean ere aritzen gara.

Arlo hontan aurkitzen dugun desberdintasunik nagusia mailari dagokioneko lekuan datza edo, beste era batera josita, erakunde politikoei legezko eta etsipenezko kutsu bat darie.

Guk geuk Hondarribian aurrez aurretik planteiatutako gizarteko ordenu honi eusteko, legezko gizarteko aginteren bat, edo ihardutzeko ahalmenean behinik behin, agertzen zaigu.

Metodologi kontuetan, azalpen hontan baztertuta, eta ideologi aurrekoerizietan sartu nahi nuke baina gehiegi luzatuko nukeenez gero, beste une egokiago baterako alde batean utzi behar dugu.

Orain, besterik gabe, osagai zehatz batzutat mintzatzera goaz. Gizarteko segmendu hauetaz benetako esplikazio bat aurkitzeko beraien testu inguruan ezarri behar ditugu. Honaino esanikoa kontutan hartu egiteke ezingo genuke inola ere arazoaren ulerketa egokirik bururatu. Nik neuk, arrantzale gizarteko zenbait osagai, bakar-bakarrik, aipatu egingo dut gehiagotan sartzeke.

Sar gaitzen gaian. Itsasontzi batean hiru mailako gizarteko lan zatiketa aurkitzen dugu. Batean patroia eta armadorea, bestean marinelak, eta azkenekoan txotxuak.

Zereginei bagatxezkie hiru maila hauetako osagai bakoitzak eginki-

zun bereziak dituela topatzen dugu. Patroiak zuzendaritza darama, erabakiak inorekin kontsultatu gabe hartzen ditu. Hemen ohar bat ipini behar dugu. Itsas zabalean patroiak, beraien artean, beti beti ari dira ukipenean irratitari esker. Nora jo, zer egin eta abarrekoak elkarrizketa hauen ondorioa dugu. Normalean itsasontziko beste arrantzalerekin elkartasunean dabil, zeini armadoreak edo itsasontziko nagusiak deitzen baitiegu. Nahiz eta denak jaun eta jabe izan patroia da arrantza zereginetan erabakitzen duen bakarra. Beste aldetik, marinela ditugu. Armadoreak eta marinela lanaldian gauza bera dira diru kontuetan holaxe ez den arren geroxeago ikusi ahal dugenez. Beste arlo batean txotxuak ditugu. Marinelaren begietan ez dira benetako arrantzaleak. Haien ustez, indartu, sendotu eta ofizioan sartu egiten ari dira. Txotxuek garbiketa, erosketak, patatak zuritu, zama astun edo gogoikarriak eraman egin behar dituzte. Kasu bereziren batean ezik, ez dute kainabera botatzen, eta lanerako prest egon behar dira beti. Arrantzaleen ahoan entzundako esaldi baten bidez esanda: «gazteen lana egiten dute». Zein eta gazteenei dagokien lana dela esan nahi du honek. Txotxua izatetik marinela izatera gauza berezirik ez dute egin beharrik, hots, mozte gogor bat ez da gertatzen geldiro doa baizik. Normalean, beste txotxu bat sartu denean itsasontzian indardun eta trebe ikusten duten batek kainabera hartzen du. Beste aldetatik, hauxe da marinela izatearen ezagubidea, beste denekin kainabera erabiltzea, alegia. Hemen ez dago bere gain erosketak edo garbiketa egin beharra.

Diruari bagetxezkio bi modutakoak agertzen zaizkigu eta barneko bi salbuespen.

Dirua partitzean ere, ohartzen dugu mailako diferentzi hau. Alde batetik, transportea, izotza, jakiak, ardoa, kafea eta honelako gauzak ordaintzeko pusketa bat diru baztertzen da eta gelditzen dena erditu egiten da. Erdia armadorentzat eta beste erdia marinelaentzat. Motorraren aberien, itsasontziko aparatuen eta gasolinaren gastuak armadoreen lepotik dira. Lehenagoan, txotxuari ez zitzaion pusketa osoa, esan didatenez, ematen marinela zigokionaren erdia baizik. Oraingoan, txotxuek marinelek beste kobratzen dute. Itsasontziko nagusien artean patroiak bi pusketa jaso ohi ditu.

Arrantzaleen arteko diferentzia hauek Hondarribiko festa nagusian dakuskigu, hots, Guadalupeko Amabirginaren egunean. Irailaren zortzian, urterik urte, Alardea gaurko Gernika Arbolaren Plazatik atara eta Harma Plazara joaten da, bere buruzagi, ofizial, eta kantinekin. Herriko ikurriña hartu ondoren, udalkide eta eliz gizonekin 1889.ko maiatzaren 22an Hiriari eman zizkioten kanoi eta fusil hotsez Guadalupe aldera abiatzen dira taldez talde taxututa. Alarde hontan patroiek jantzi behar dute txapel beltza beste talde denek gorria daramatelarik. Arrantzale gazteek talde bat osatzen dute eta beste bat aurki dezakegu patroiez osatuta.

Hiru osagai hauen arteko harremanak eta beste osagaiekin dituztenak nolakoak izan dira eta nolakoak dira xehetasun aundiagoz ikusi ba-

genitu guztiz interesgarria izango litzateke nondik nora doazen jakin dezagun; baina zoritxarrez, denbora gehiagorik ez dugu-ta, alde batean utzi behar dugu.

Lerro hauekin gizatalde bat erabatekoa ez dela saiatu naiz erakusten, eta edozein gizatalde gizarteko osagaiez osatuta dagoela adieraztea izan da nire xedea.